

GURE ESKU DAGO GED - EH KULTURA ELKARTEAREN ESTATUTUAK

ATARIKOA

GURE ESKU DAGO GED-EH Kultura Elkartea Euskal Herriko aniztasunaz jabetzen garen hainbat herritarrok sortu dugu. Aniztasun hori dela eta, beharrezkoa ikusten dugu demokrazia kulturean eta bere garapenean laguntzen duten tresnetan sakontzea. Izan ere, horren ondorioz, Euskal Herria osatzen dugun herritarron artean bizikidetza orekatua eta zoriontsua lor dezakegula sinesten dugu.

Horrez gain, gure herriaren etorkizun politikoan parte hartu nahi dugu, eta, horretarako, erabakitzeke eskubidearen aldeko pedagogia egingo dugu eta kultura parte hartzailea sustatuko dugu gure herriaren kultur aberastasuna zabalduz.

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA ARAUBIDEA

1. Artikulua.- Izena eta araubidea.

2014ko azaroaren 6an AS/G/18803/2014 erregistro-zenbakiarekin inskribatutako GURE ESKU DAGO GED-EH KULTURA ELKARTEAREN estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Elkarte honek Euskal Herriko erabakitzeke eskubidearen aldeko elkarlana eta kultura parte hartzailea sustatzeko sortu zen. Elkartea horren alde lan egin nahi duen pertsona orori irekia dago.

GURE ESKU DAGO GED-EH kultura Elkartearen araubidea honako hau izango da: Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa; Euskal Autonomia Estatutuaren 9, 10 eta 13. artikuluetan ezarritakoa, Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legea; estatutu horiek, elkartearen gobernu organoek behar bezala hartutako erabakiak eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira) aplikagarriak izango dira.



Nahi gabe gure J0D0Z-T1YHT-Y5RK bilagailua erabiltuta, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1YHT-Y5RK en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

LEHENDAKARIA

1
LEHENDAKARIA

ELKARTEAREN IZAERA ETA HELBURUAK

2. Artikulua.- Izaera.

GURE ESKU DAGO GED-EH Kultura Elkartearen izaera kultura eta aisialdirako izango da. Irabaz asmorik gabeko elkarte da. Beste edonolako elkarte, alderdi politiko edo erakundeekiko funtzionamendua autonomoa izango du. Ez du inongo eta inoren morrontzarik. Bere jokabidea izaera horri ahal den estuen lotuko zaio.

GURE ESKU DAGO GED-EH Kultur Elkarteko kideek beti norbanako gisa parte hartuko dute elkartean, inongo elkarte edo alderdiren ordezkaritzarik izan gabe.

3. Artikulua.- Helburuak.

Elkartearen **xede nagusiak hauexek dira**: demokrazia kulturaren bidez aniztasuna ezagutu eta lantzea; erabakitze eskubidearen eta kultura parte hartzailearen inguruan elkartzea, solas egitea eta aritzea. Horrez gain, euskal kultura bere aniztasun osoan lantzea eta ezagutaraztea.

Goi-helburu horiei begira, elkarteak honako **helburu zehatzak** ditu:


- Euskal herriko demokrazia kulturaren sakontzeko behar diren gizarte baldintzak lantzea eta behar diren gizarte baldintzak lantzea eta behar diren gizarte jarduera oro egitea.
- Gure Esku Dago Elkartearen xedeen alde dauden herritar orori elkargune eta aterki komun bat eskaintzea.
- Aipatutako xede horiek guztiak lortzeko elkarteak mota guztietako ekimen demokratiko eta parte hartzaileak sustatu, lagundu eta egingo ditu.

Helburu horiek lortzeko edonolako ekintzak sustatuko ditu, ezarritako legeko baldintzak bere ondoren:

- Bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatzea.
- Era guztietako ondasunak eskuratzea eta edukitzea, eta mota guztietako ekintzak eta hitzarmenak egitea.
- Nolanahiko ekintzak burutzea, betiere legeekin eta bere estatutuekin bat egiten badute.



IDAZKARIA


2

LEHENDAKARIA

ELKARTEAREN EGOITZA

4. Artikulua.- Elkarte honen egoitza helbide honetan egongo da:

Elkarte honen egoitza helbide honetan egongo da: Erdiko Kalea 23, Arrasate(K.P.: 20500). Helbide elektronikoa: idazkaria@gureeskudago.eus.

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.

LURRALDE EREMUA.

5. Artikulua.- Elkarte honek nagusiki lurralde-eremu honetan gauzatuko ditu bere zereginak: Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian, baina lurralde horietatik kanpo ere aparteko jarduerak egin ahal izango ditu.

HIZKUNTZA JARDUPIDEA

6. Artikulua.- Elkarteak aurrera bultzatuko dituen jarduera ezberdinetan, nahiz bere baitako funtzionamenduan, nahiz beste pertsona edo erakundeekiko harremanetan, euskarari emango dio lehentasuna. Nolanahi ere, gaztelania, frantsesa eta ingelesa ere erabiliko ditu, bere jarduerak horrela aritzea eskatzen duenean.


IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAU

7. Artikulua.- Elkartea iraunkorra izateko eratu da eta VII. Kapituluaren esatenenez, ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkaratearen funtzionamendua eta barne antolamendua demokratikoa izango dira, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubideak betetzen ez dituzten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.



IDAZKARIA



3
LEHENDAKARIA

BIGARREN KAPITULUA

ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

8. Artikulua.- Organo hauek izango dira Elkartearen Zuzendaritza eta administrazioaren arduradunak.
- a) **Bazkideen Batzar Orokorra** izango da elkartearen organo gorena.
 - b) **Lehendakaria** izango da zuzendaritza organo iraunkorra.
 - c) **Kontseilua**.
 - d) **Idazkaria**.
 - e) **Diruzaina**.

BATZAR OROKORRA

9. Artikulua. Batzar Orokorra:

Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Gutiz deusezak izango dira Estatutu hauen aurkako erabaki edota hitzarmenak.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Lehendakariaren eta Kontseiluaren kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desegitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kontseiluko kideak izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Aurreko kargu guztiak aukeratzeko hauteskunde erdua arautuko duen barne araudia onartuko du.
- h) Batzordeak izendatzea lan jakinak egiteko edo gai zehatzak aztertzeako.
- i) Ezarritako bazkide kopurua areagotzea edo murriztea.
- j) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- k) Ondasun higiezinak erabiltzeko edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- l) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaien erabakitzea, hala komeni bada.



IDAZKARIA



4
LEHENDAKARIA

- m) Lehendakariaren, Kontseiluaren edota Elkartearen erabakiak eta jardunak inpugnatzeko prozedura zehaztuko duen barne araudia onartuko du, Kontseiluak proposatuta.
- n) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea edota diru-sarrerak eskuratzeko sistemak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar orokorrak Lehendakariari edo Kontseiluari eskuorde diezaioke horretarako bereziki hartutuako erabakiaren bidez.
- o) Elkartean sartzeko kuotaren balioa eguneratuta mantentzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte organoari eskuordetu diezaioke horretarako berezi hartutako erabakiaren bidez.
- p) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- q) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

10. Artikulua. Ohiko eta ez ohiko batzarrak:

Batzar Orokorrak ohiko eta ezohiko batzarrak egingo ditu.

11. Artikulua.- Urteko ohiko batzarra:

Batzar orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko batzarra: 4. hiru hilekoan izango da, 9. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.


12. Artikulua.- Ez ohiko bilkurak:

Batzar Orokorra Lehendakariak edo Kontseiluak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko batzarrean, bere ekimenez edota bazkideen %10ak eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolanahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:


- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkartea desegiteko.

13. Artikulua.- Deialdia eta baliozko eratze baldintzak:

Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira; bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik bilkura egun arte, gutxienez zazpi egun


Karnele Olabarieta

IDAZKARIA


LEHENDAKARIA

pasatu beharko dira. Lehen eta bigarren deialdiaren ordua ere adieraz daitezke. Dena den, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena ordezkariaren bidez agertuta; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten kopurua edozein dela ere balio osoa izango luke.

14. Artikulua.- Baliozko erabakiak hartzeko baldintzak:

Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuena gehiengo kualifikatua beharko da (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea alegia) erabaki hauek hartzeko:

- a) Elkartea desegitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

Bozketetan berdinketa geratuz gero, bozketa errepikatu egingo da. Bozketa errepikatu ondoren berdinketak bere horretan jarraituko balu, lehendakariaren boto ebazleak erabakiko luke.

15. Bazkideen ordezkotza:

Bazkideek beste edozein bazkideren esku utz dezakete euren ordezkotza Batzar Orokorraren parte hartzeko. Ordezkaritza hori idatziz eskuordetu beharko da eta Batzarreko idazkariari eman beharko da gutxienez bilera hasi baino ordubete lehenago. Eskuordetzea elkartearen web-orriaren bidez ere egin ahal izango da Kontseiluak ezarritakoaren arabera.

Ordezko botoa gai-zerrendaren puntuetarako bakarrik eman ahal izango da. Bazkide bakoitzak ezin izango du 2 boto baino gehiago ordezkatu (guztira 3 boto, berea barne).

KONTSEILUA.

16. Artikulua.- Kontseilua.

Kontseilua izango da, Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentzauei jarraikiz, Elkartearen eginkizuna planifikatu eta garatzen duen eta organo iraunkorra.


IDAZKARIA


LEHENDAKARIA

17. Artikulua.- kontseiluaren funtzioa, osaketa eta gutxieneko biltzea:

Kontseilua da, Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz, Elkartearen eginkizuna planifikatu, garatu, eta Elkartearen kudeaketaren gainean Lehendakariari irispide lotesleak ematen diona.

18. Artikulua.- Kontseilua osatuko dutenak honakoak izango dira:

LEHENDAKARIA, IDAZKARIA, DIRUZAINA ETA, GEHIENEZ, HOGEI KONTSEILUKIDE.

Gutxienez hiru hilean behin bildu beharko dute.

Kontseilu-kideek beren karguei datxezkien betebeharrak izango dituzte, Kontseiluko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita kontseiluak berak eskatzen dizkienak ere.

19. Artikulua.- Kontseiluaren kideen ez etortzea:

Kontseiluko kideren bat bilera horietara 6 aldiz jarraian, edo, tarteka 10 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu behar bezala arazoitzen.

20. Artikulua.- Kontseiluko kideen hautaketa eta agintaldia:

Batzar Orokorrak hautatutako ditu Kontseiluko kideak. Kargu horiek 4 urterako izendatuko dira Batzar Orokorrak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.


21. Artikulua.- Kontseiluko kide izateko baldintzak:

- a. Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun arrazoirik ez izatea.
- b. Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c. Elkarteko bazkidea izatea.

22. Artikulua.- Kontseiluko karguaz jabetzea:

Kontseiluko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Batzar Orokorrak Kontseiluko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.



IDAZKARIA



7
LEHENDAKARIA

23. Artikulua. Kargua uztea.

Kontseiluko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:


- a. Karguaren epea bukatzen denean.
- b. Dimititzen baldin badute.
- c. Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoia dituztenean.
- d. Estatutu hauetako 19. Artikulua aplikatuz kontseiluko kideak bileretan hutsegiteak eginez gero.
- e. Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakiz gero.
- f. Hiltzen baldin badira.

“a)” idatzi-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoa, Kontseiluko jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

b), c) d) e) eta f) idatzi-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoa, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Kontseiluak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu izendapenak egingo ditu.

24. Artikulua. Kontseiluaren eginkizunak:

- a. Elkartearen kudeaketaren inguruko irispide lotesleak emango dizkio Lehendakariari, beti ere bere gutxieneko autonomia errespetatuz.
- b. Elkartearak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea, eta ekintza horien egitasmoa Lehendakariari aurkeztuko dizkio.
- c. Elkartearen jarduera plan orokorra garatuko du.
- d. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontuak planifikatuko ditu.
- e. Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria aztertuko eta prestatuko ditu.
- f. Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzun eta horien gainean hartu beharreko neurriak hartuko ditu.



IDAZKARIA


8
LEHENDAKARIA

- g. Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutueta hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorriz.
- h. Beste elkarteekiko edo erakundeeekiko harremanak landuko ditu.
- i. Elkartearen artxiboaz eta bere historia biltzeaz arduratuko da.
- j. Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiliko ditu, betiere ez badira euren eskumen eskusiboak.

25. Artikulua.- Kontseiluaren bilkurak.

Kontseiluaren bilkurak lehendakariak erabaki edo kontseilu kide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako burua lehendakaria izango da, eta ez balego, kontseilu-kide zaharrena.

Kontseiluak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren kontseilu-kideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du.

Horretarako, gutxienez kontseilu-kideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran.

Berdinketarik izanez gero, lehendakariaren boto ebaslea izango da erabakiko duena. Idazkariak bilera-akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

Akten liburua web-orriaren bidez argitara daiteke.

KIDE BAKARREKO ORGANOAK


LEHENDAKARIA

26. Artikulua.- Lehendakariaren eginkizun nagusiak.

Lehendakariak bere gain hartuko du elkartearen legezko ordezkaritza, Kontseiluak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

27. Artikulua.- Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:

- a. Kontseiluaren eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero bere boto ebasleaz erabakitzea.
- b. Elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.



IDAZKARIA


9
LEHENDAKARIA

- c. Elkaratearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren eta Kontseiluaren jarraibideekin bat etorriz eta lehenengoaren kontrolpean.
- d. Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- e. Batzar Orokorraren bileretako gai zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- f. Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusiboak.
- g. Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- h. Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Kontseiluari horren berri ematea.

28. Artikulua.- Lehendakariaren hautaketa eta agintaldia:

Batzar Orokorrak hautatuko du lehendakaria. Kargu horrek 4 urtetako izendatuko da Batzar Orokorrak berariaz baliogabetu ezean. Karguduna behin eta berriro hautatu ahal izango da.

29. Artikulua.- Lehendakaria izateko baldintzak.

Kontseiluko kidea izateko baldintza berberak bete beharko dira.

30. Lehendakaritza karguaz jabetzea:

Lehendakaria izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Batzar Orokorrak Lehendakariaren dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

31. Kargua uztea:

Lehendakariak kasu hauetan utziko du kargua:

- a) Agintaldia bukatzen denean.
- b) Dimititzen baldin badu.
- c) Bazkide izateari uzten dionean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituenean.
- d) Estatutu hauetako 19. artikulua aplikatuz Kontseiluko bilaretara hutsegiteak eginez gero.
- e) Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakiz gero.


IDAZKARIA


10
LEHENDAKARIA

f) Hiltzen baldin bada.

“a)” idatzi-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoia, Lehendakariak jardunean jarraituko du lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

b), c) d) e) eta f) idatzi-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoia, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Kontseiluak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu izendapenak egingo ditu.

Organo honen osaeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

IDAZKARIA

32. artikulua.- Eginkizunak:

Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.


Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko liburuaren eta artxiboaren edukia egiaztatuz eta Lehendakariaren zein Kontseiluko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.


Batzar Nagusiko eta Kontseiluko bileren aktan iragarki taulan eta web-orrian eskegiko dira, edozein bazkidek eskura izan dezan.

DIRUZAINA

33. Artikulua.- Eginkizunak:

Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Lehendakariari eta Kontseiluari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onar ditzan.


IDAZKARIA


11
LEHENDAKARIA

Elkartearen sistema ekonomiko osoa gutxienez hiru hilero aurkeztuko zaio Lehendakariari eta Kontseiluari. Sistema hori, onetsi ondoren, jende aurrean azaldu ahal izango da, iragarki taulan eta web-orrian, edozein bazkidek eskura izan dezan.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

34. artikulua. Baldintzak.-

Bazkide nahi izan eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatua ez edukitzea. Eta edozein dela ere haien bizilekua, jatorria edo nazionalitatea

35. artikulua.- Bazkide motak: Batzar Orokorraren erabakiz elkarteak **ohorezko bazkideak** izendatu ahal izango ditu. Bazkide izateko baldintza guztiak bete beharko dituzte eta, euren artean, elkartearen helburuak betetzeko bertaratu ezineko pertsona fisikoak ere izenda ditzake.

Elkarte honek, **bazkide arruntez** eta ohorezko bazkideez gain, **bazkide babesleak** ere eduki ahal izango ditu, elkarteari diru laguntza emango lieketenak.

Ohorezko bazkideak eta bazkide babesleak ez dira legezko bazkide, ez dute elkarteko Zuzendaritza eta Administrazioarako jardute sailetan parte hartzeko eskubiderik, ezta inongo betebeharririk ere. Hala ere, euren proposamen nahiz iradokizunak berariaz aztertuak izango dira elkarte honen partetik. Agenda kulturalaren ekintzetan parte hartu ahal izango dute bazkide arrunten baldintza berberetan.

36. artikulua.- Bazkide berrien onarpenerako prozedura:



IDAZKARIA



LEHENDAKARIA

Elkartean sartu nahi duenak bere eskabidea idatziz aurkeztu beharko dio lehendakariari edo idazkariari. Eskabidean bere izen-abizenak, NAN zenbakia eta harremanetarako telefono edo helbide elektroniko bat adierazi beharko ditu.

Lehendakariak eskaeraren berri emango dio Kontseiluari eta horrek erabakiko du elkartean onartu ala ez.

Deuseztapen ebazpena idatziz komunikatu beharko zaio interesdunari, bertan deuseztapena arrazoituz. Erabakiaren aurkako gorako errekurtsioa jar dakioke Batzar Orokorrari, biltzen den hurrengo bileran azter dezan dagokion erabakia hartuz.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

37. artikulua.- Elkarteko bazkide guztiek honako hauek egiteko eskubidea dute:

- Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 egunen epean.
- Elkartearen gobernu eta ordezkaritza organoen osaerari, elkartearen kontu egoerari eta elkartearen jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
- Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegia errespetatuz.
- Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubidea hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- Estatutuen eta, egonez gero, barne araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- Elkartearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- Elkartearen talde-ekintzetan parte hartzea, eta bazkideen erabilerako gauzak erabiltzea (liburutegiak, elkartearen egoitza, eta abar). Kontseiluak edo Lehendakariak, kasuan kasu, erabakitako moduan.


IDAZKARIA


13
LEHENDAKARIA

- Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartutako eta bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte joan aurretik.


38. Artikulua.- Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek gauzatzeko lankidetzak aktiboa ematea. Ekintzetarako Lehendakariak edo Kontseiluak bazkideen laguntza eskatuz gero, bazkideek laguntzeko beharra izango dute.
- Elkarteko zuzendaritza-organoek baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.
- Bazkide guztiek dute Elkartearen martxa onaren alde jokatzeko betebeharra eta bere izen onaren alde egitekoa. Okerren bat balego Lehendakariari edo Kontseiluari jakinarazteko beharra dute.
- Bazkide guztiek errespetua zor diete gainontzeko bazkideei eta denon arteko anaitasun giroa landu eta zaintzeko beharra dute.
- Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- Estatuengandik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

39. Artikulua.- Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

- a. Hil egitea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desegitea).
- b. Bazkidea bere borondatez joatea.
- c. Arrazoi hauengatik, bazkide izateari uzteko zigorra jasotzea: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak, Kontseiluak edo Lehendakariak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.


Karnele Olabarrieta

IDAZKARIA


LEHENDAKARIA

LAUGARREN KAPITULUA

ZIGOR-ARAUAK.

40. Artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak, Batzar Orokorrak edota Lehendakariak hartutako erabakiak, Kontseilu organoak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.


Bazkideak dituen eskubideak ken dakizkioke 15 egunetik hilabete bat arte. Horrez gain, elkartetik betiko kanporatzea izan daiteke zigorra, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.


Horretarako, Lehendakariak edo Kontseiluak zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezakete. Ikerketaren instrukziogilea elkarteko idazkaria izango da eta berak proposatuko dizkio Kontseiluari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Kontseiluak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta Batzar Orokorrari erabaki horren aurkako errekurtsua jarri ahalko zaio.

41. Artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko hainako egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta batzar Orokorrak, Lehendakariak edo Kontseiluak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatean, lehendakariak edo kontseiluak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak edo kontseiluak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espedienteari hasiera ematea erabaki dezakete.

42. Artikulua. Elkartetik kanporatzeko zigor espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Kontseiluaren lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedienteko instrukziogilea izan den idazkariak.


IDAZKARIA


15
LEHENDAKARIA

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsua aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsua ebazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Kontseiluak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Kontseiluko kidea bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo dio, Kontseiluak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman dakioke, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

43. Artikulua.- kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa baldin bada.
44. Artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematean - berak nahi duelako edota zigorra ezarri zaiolako - bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

BOSTGARREN KAPITULUA.

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK.

45. Artikulua.- Sozietate-ondarea 41.469,44 eurokoa da”.
46. Artikulua.- Elkartek, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:
- d. Sarrera-kuotak.
 - e. Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
 - f. Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
 - g. Lehendakariak edo Kontseiluak Estatutuen helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen dituzten jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

Elkarte eta ekonomia ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Karwek. dabarieta

IDAZKARIA




LEHENDAKARIA

Elkarteak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatuz lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili behar. Inola ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

SEIGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA.

47. Artikulua.- Estatutuak aldatzea horretarako preseski deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Kontseiluak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengilea izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Kontseiluak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.
48. Artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Kontseiluaren hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Kontseiluak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.
49. Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaizkio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.
- Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.


IDAZKARIA


17
LEHENDAKARIA

ZAZPIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

50. Artikulua.- Elkartea arrazoi hauengatik desegingo da:

- a. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
- b. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
- c. Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
- d. Legez ezarritako gutxieneko bazkide kopururik ez duelako.
- e. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.
- f. Epai irmo batek elkartea desegitea agintzen duelako.

51. Artikulua.- Elkartea deseginez gero, desegiteko erabakia hartu duen Ezohiko Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du.

Batzorde hori LEHENDAKARIA, DIRUZAINA, IDAZKARIA ETA ELEDUNAK DIREN KIDEX OSATUKO DUTE eta dagoen diruaz arduratuko dira.


Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko elkarte bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

XEDAPEN GEHIGARRIA:

Karguetan errotaioa komenigarria delarik, Kontseiluko kideak zein Lehendakaria, Idazkaria eta Diruzaina gehienez zortzi urtez egongo dira karguetan. Zortzi urte eman ta gero bere kargua betetzeko beste aukerarik ez balego, Batzar Orokorrak 4 urteko luzapena berrestu behar du gutxienez bozketan parte hartzen duten bazkideen erdia baino gehiago den gehiengo kualifikatu baten bidez. Eta horrela balizko luzapen gehiagotan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Estatutu hauek onartu eta gero, aukeratutako lehen organoek (Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta Kontseilua) Batzar Orokorrari hautaketa araudi berri bat aurkeztu beharko diote -plataforma digitala bete-betea martxan egongo denean-, Batzar Orokorrak onartu dezan. 2020an Batzar Orokor bat ospatu beharko da aukeratutako karguak berresteko.


IDAZKARIA


18
LEHENDAKARIA

Batzar Orokorrak karguak berrestu ezean, hauteskunde prozesu berri bat ospatu beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudi bat egin ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.



Karueta Olabarrieta

IDAZKARIA



19
LEHENDAKARIA

